



PRENTSA OHARRA: 2023.11.08

## **Bihartik aurrera, Jorge Oteiza eta Itziar Barrioren lanak Shanghaiko Bienalean izango dira ikusgai, Etxepare Euskal Institutuaren ZABAL programaren baitan**

- **Bihar, azaroaren 9an, zabalduko ditu atea “Cosmos Cinema” izenburupean Asiako arte-ekitaldi garrantzitsuenak.**
- **Jorge Oteizaren bost artelan eta Itziar Barrioren bideo-instalazio bat hartuko ditu biurtekoak.**
- **Etxepare Euskal Institutuak gonbidatuta, Shanghaiko Bienalaren komisario Anton Vidoklek egindako bisita du oinarri euskal artisten parte-hartzeak.**

Bihar hasita eta 2024ko martxoaren 31ra, Jorge Oteiza eta Itziar Barrio euskal artisten hainbat lan izango dira [Shanghaiko Biurtekoa](#)ren 14. edizioan, [ZABAL](#) programaren esparruan egindako lanaren ondorioz. Izan ere, joan den uztailan Anton Vidokle biurtekoaren komisarioak euskal museoak, artisten estudioak eta beste hainbat espazio bisitatu zituen euskal testuinguru artistikoan murgiltzeko, [Etxepare Euskal Institutuak](#) gonbidatuta. Euskal sorkuntzaren nazioarteko zabalkundea helburu duen ZABAL ekimenari esker, euskal artisten obren presentzia egongo da Shanghain.

Zehazki, bihar abiatuko den bienalak Jorge Oteizaren (1908-2003) bost lan erakutsiko ditu, bere heriotzaren 20. urteurrenean. Aukeraketa hiru eskulturek eta bi collagek

osatzen dute, eta Alzuzako [Jorge Oteiza Fundazio Museotik](#) heldu dira Shanghaira. 50eko hamarkadan, arte abstraktuaren inguruko hainbat esperimazio egin zituen Oteizak, non hutsaren, espazioaren eta metafisikaren gaia ikertu zuen, hark eskulturari egindako ekarpenaren muina izan zena. Lanetako bik, '**Kutzak Harrian**' (1958) izenekoak, marmol zuriz zizelkatutako eskulturak dira, erretxinazko inkrustazioekin. hirugarren eskultura '**Malevitx unitate irekiaren bidezko espazio errotazioa/ Malevitxen omenez**' (1957) da, forjatutako altzairuz osatutako eskultura. Hautaketaosatzen duten paper gaineko ikatz-paperezko **bi collageak** artista oriotarrak sortu zituen 1958an

Bestalde, New Yorken bizi den Itziar Barrio euskal artistak, '**A Demon that Slips into Your Telcopes while You 're Dead Tired and Blocks the Light**' (2020) bideo-instalazioa erakutsiko du Shanghaiko Bienalean datozen hilabeteetan. Bideo-saiakera honek elementu dokumentalak eta fikziozko elementu espekulatiboak konbinatzen ditu, irudi astronomikoaren eta ezagutza zientifikoaren giza eraikuntza azaltzeko xedez.

Shanghaiko Bienalaren edizio honek, 'Cosmos Cinema' izenburupean, unibertsoaren funtzionamenduari eta bertan dugun lekuari buruz hausnartzeko espazio-denbora eskainiko die bisitariei. 'Cosmos Cinema' erakusketak mundu osoko 80 artista baino gehiagoren lanak bilduko ditu, XX. mendearen hasieratik gaur egunera artekoak. Shanghaiko Biurtekoa Txinako arte garaikidearen nazioarteko lehen biurtekoa eta Asiako ekitaldi artistiko garrantzitsuenetarikoa da.

## ZABAL programa

Etxepare Euskal Institutuak atzerrian euskal kultura eta euskal artisten nazioarteko zabalkundea bultzatzeko helburuz, [ZABAL ekimena](#) jarri zuen abian 2019an, Artingenium-en laguntza teknikoarekin. Programak euskal sorkuntza garaikidearen nazioarteko proiektzioa bultzatzea du xede, sortzaileen, profesionalen, eragileen eta



tokiko erakundeen arteko epe luzeko trukea eta lankidetzak sustatzeko nazioarteko sareak garatuz eta nazioarteko arte erakusketa garrantzitsuenekin lankidetzak ildoak sortu eta harreman iraunkorrak ezarriz.

Azken batean, euskal artistei aukera berriak eskaini eta nazioarteko testuinguruarekin loturak sortu nahi ditu ZABAL ekimenak. Eta horretarako, Institutuak nazioarteko komisarioak, arte kritikariak edo eta museo zuzendariak gonbidatzen ditu Euskal Herriko testuinguru artistikoa ezagutzera, harreman zuzenaren bitartez euskal artistekin elkarlana sustatzeko.

ZABAL programaren baitan baita ere, São Pauloko biurtekoan ikusgai dago egun hauetan eta abenduaren 10era arte Juan van der Hamen-en '[Katalina Erauso, Moja Alferezaren erretratua](#)' obra, Kutxa Fundazioaren bildumaren baitako lana.

Informazio gehiago:

- [ZABAL: Shanghaiko Bienala](#)
- [ZABAL programa](#)

#### Info+

Maidier Urteaga Belza  
Etxepare Euskal Institutua  
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1  
Donostia / San Sebastián  
T: 943 023 400 / M: 688 670 217  
[komunikazioa@etxepare.eus](mailto:komunikazioa@etxepare.eus)

[www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus)